

# Nafarkaria

• ostirala • 2001ko urtarrilaren 26a

Egunkaria

Gehigarri honetan



**Iruñea** • Euskarazko film luze eta labur bana pantailaratuko dute ostiraletan, gaurtik aurrera  
**Luis Arellano** • «Argazkien bidez istorioak osatzea maite dut»

## Tabako beltza



• MIKEL SAIZ



Ez da samurra izanen Nafarroako tabako industriaren geroa. Nafarroako tabako ekoizleak biltzen dituen Tabachavana elkarteak egunotan ari da tabako hosto idorrak biltzen eta sailkatzen. Nafarroako tabako beltzarekin puruak eginen dituzte. Orotara, ehun milioi pezeta inguru (lau milioi libera) mugitzen ditu urtero industria honek, baina geroz eta gutiago irabazten dute tabako ekoizleek; prezioak egonkorak dira, langileak falta dira eta ekoizleak arunt zaharrak.

## Leitza

## Ihoteak ospatzeko prest

Inauterietako parranda eta mozorroak bihartik astearte arte ibiliko dira Leitza kaleetan

**Heldu dira aurtengo ihoteak. Larunbatean hasi eta astearte arte, ganbarako trapu zaharrak astintzeko garaia da, denak atxoatuta ibiltzeko agindua plazaratu baitute Leitza inauteriak antolatu dituztenek.**

**B**IHARTIK AURRERA PARRANDA egiteko aukera izanen da Leitza. Aurten inoiz baino lehenago abiatuko dira herriko etxetara eskea egitera, 15:30ean. Lauzabost talde aterako dira herri guztia alaitzera, txistulariak, gaita joleak eta trikitilariak alboan dituztela. Batzuk eskean dabilzan bitartean, Aurrera pilota eskolakoek antolatuta, pilota partidak izanen dira 18:30etik aurrera. Bost adinetan banatutako bikoteak ariko dira Amazabal pilotalekuan. Hiru ordu geroago, eskolako jantokian, herri afaria egingen dute; hori ere Aurrerak antolatua. Derrigorrezkoa da atxoatuta joatea.

Larunbata Leitza inauterien lehen eguna izanen da, baina igandea ere egun garrantzitsua izanen da. Izan ere, urtetik urtera arrakasta handia lortzen ari den organ desfilea egingen dute herriko kale nagusian zehar. Kultur Taldeko kide Jaione Astibiak esan duenez, aurten hamabost bat talde animatu dira karroza eder bat prestatzeko, eta horien artean Saharako herriari elkartasuna adierazteko sortu zen taldeak ere berea aterako du, han-

go *jaima* bat irudikatuz. Kalejira eguerdian izanen da, Incansables txarangakoekin batera. Ongi desfilatu eta gero, bazkaria izanen da. Arratsaldean, umeak izanen dira protagonista. Tren Ttikia izanen dute 17:00etan, eta ordubete geroago, txarangakoekin kalejira egingen dute. Iluntzeko 19:30etik aurrera ez da musi-

ka faltako udaletzeko karrerapean, Mindegia anai-arrebak ariko baitira bertan.

Astelehena egun berezia izaten da leitzarrentzat. Baserrietara abiatuko dira eskera goizeko bederatzietan, eta Arkixkil, Gorritaran, Erreka eta Sakulu auzoak bisitatuko dituzte. Ordua ezin da zehaztu, baina goizean goiz abiatu ez direnak, herrian ere izanen dute ongi pasatzeko aukera, lauretatik seietara Kultur Taldearen eskutik, plazan Kulkikoek umeekin jostetan ibiliko dira. Eta arratsaldean, gauean bezala, Xapo taldekoekin dantza egiteko aukera izanen da karrerapean.

Asteartean, indarrak jaisten

hasten direnean, Erasote auzoko kideak ikustera joango dira goizeko 09:30ean; eta 11:30ean beste hitzordu garrantzitsu bat dago, Incansables txarangakoek eskolakoak bisitatuko baitituzte. Arratsaldean ere giro onean ospatuko dituzte eskolako ikasle, irakasle, guraso eta nahi duten guztiek, denak atxoatuta kalez kale ibiliko dira, eta, ondoren, Guraso elkartearen eskutik, txokolate beroa banatuko da plazan. Xapo taldekoak eta Incansables txarangakoak arduratuko dira aurtengo ihoteak alaitzeaz, eta ahal duenak azken parranda egiteko aukera izanen du.

→ Eli Belauntzarán



Inauteri garaia da Leitza, bihartik astearte arte. Igandean, organ desfilea egingen dute. ● EGUNKARIA

## Sunbilla

## Mozorroak prest

AZKEN URTEOTAN INDAR handia hartu dute Sunbilla-ko inauteriek. Gaurdanik igandea bitarte, makina bat ekitaldi izanen dituzte sunbildarrek inauteriaz gozatzeko. Gaur, ortzirala, goizean goiz aterako dira herriko gazteak puska-biltzen baserri baserri, baina lehenagotik Itturburun elkarteko dira gosaritarako. Istola eta Exkerneko Borda baserrietan bazkalduko dute ondoren. Arratsaldean, haurren txanda izanen da; 17:00etan Ulibeltzak elkartean txokolatea emanen diete. 20:00etatik 22:00etara musika izanen da Fonda parean, Salaberri taldearekin, eta talde bera ariko da arratsan Ulibeltzak elkartean, emakumeen afariaren ostean. Herriko emakume anitz elkartzen da afaltzera inauteriak aitzakia hartuta; urtetik urtera indartzen doan topalekua da, gainera.

Bihar ere gazteak eskean ibiliko dira, Iruribietan gosalduta eta gero. Ortziralean bezala, galtza urdinak eta atorra koadroduna jantzi, zapia gurutzaturik paratu, eta herriko karriketan ibiliko dira puska-bilketan. Girorik ez da faltako. Fondan bazkalduko dute, eta afaria, berriz, Salaberriaren egingen dute.

Baina inauterietako egun handia igandean izanen da. Bustitzen gosalduta ondotik, karrozen desfilea egingen da goizeko 11:30ean. Inguruko herrietako jende anitz bildu ohi da igandean organ ikustera. Izan ere, bertako herriarrek lan ikaragarria hartzen dute inauterietarako organ prestatzen. Azken urteotako joerari segika, albiste izandako gaiek leku berezia izanen dute. Tamara eta behi erorik ez da faltako Sunbillan.

→ Jon Abril

## Massilia a Caesare capitur

AITOR TXARTERINA



**A**zkenaldi honetan hausnarketa eta iritzi zenbait irakurtzeko parada izan dugu paper duinok osatzen duten EGUNKARIAN. Badirudi euskal antzerkia —euskara komunikazio tresna gisa darabilen antzerkigintza— aitzina doala eta, bidenabar, osasuntsu da goela. Nik neuk ere badut zer erranik arrotz sentitzen naizen mundu honen gainean.

Kantitatea aztertzen badugu, eta egin beharreko konparazioak logika onez kokatzen baditugu, batez berteko onargarria guregana dezakegu. «Gaitzerdi!», oihukatuko du utopikoak. «Badabil, alabaina», arrapostuko dio pragmatikoak.

Kalitatearen azala ukitzen badugu, azal zaharrari dagokion zimurra kausituko dugu.

## Antzerkiaz

Euskarazko produkzioak erdarazkoak adina diru mugitzen ote?

Zuzendari finlandiar elebakarrak taxuz zuzen ditzake aktore finlandiar elebakarrak portugesezko obra baterako?

Eta gurean, zenbatean gertatzen da halakorik?

Ikusi al duzu inoiz arrunt oker mintzo den aktore espainiar bat espainolez jokatzeko? Eta gurean?

Posiblea ote da hilabete baten buruan antolatzea obra bat, erabili beharreko hizkuntza zuzendariak eta aktoreek jakin ez arren?

Marka bera eskatzen zaio kirolari olimpikoari zein parapolimpikoari?

Zaintza bera eskatzen zaio espainolari, frantsesari, in-

gelesari... zein euskarari, katalanari, hizkuntza gutxituari?

Zerk bermatzen du kalitatea antzerkigintzan? Testua paperean? Testua aktorearen ahotsean? Ekoizpen sendoa, baliabide anitzekoa? Gorputz espresioa? Bihar bertze antzerki sari bat banatuko dute Donostian. Hamaika lan baizik ez da aurkeztu, nahiz eta diru sari dotore eskaini. Iruñean datorren hilean-edo taularatuko dute umeendako ene obra bat. Nola? Ez dakit, edo dakidan apurra negar zotinak eragiteko manerakoa. Hodei beltzak antzematen ditut, bustiko naizen ustekoa naiz. Eurria sentitu artio, halere, ez du merezi aterkia zabaltzea. Gerorak kokatuko gaitu. Neronek ahalegin guztiak iminiko ditut kalitatearen alde. Bertze batzuegandik ez dut alegriarik espero. Ez da salaketaren tenorea. Oraino.

Iruñea ●

# Laugarren zinemaldia

Ostiralero, martxoaren bukaera arte, euskarazko filmak ikusi ahal izanen dira

Laugarren aldiz, Karrikirik, Iruñeko Euskaldunon Elkarteak, euskarazko filmen zinemaldia antolatu du. Lehen emanaldia gaur izanen da: *Asterix eta Obelix, Zesarren aurka*.



ur dai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

## Errendizioa

Gaztetan lakota edo siouxei buruzko liburu guztiak irakurri nituen, eta erabat indiozale bihurtu ere bihurtu nintzen. Kultura hartan dena, edo ia-ia dena, funtsean ongi hausnartua iruditzen zitzaidan. Baziren gauzatxo batzuk, dena den, nahiko ezkorrak iruditzen zitzaizkidanak. Esate baterako, emakumeen hilerokoarekin gertatzen zena. Hilerokoa zuten emakumeei tipi edo etxe berezia jartzen baitzitzaien herriko gainerako dendetatik harantzago, aparte. Ez dakit, ez dut gogoan, zer nolako irizpideri jarraituz, baina kontua da emakume haiek denda horretan biltzen zirela, bereizirik, hiru edo lau egun horiek igarotzeko. Nire kolporako hura barrabaskeria zen. Gaztigu guztiz irrazionala. Ez dakit esan dudana, baina oso gazte nintzen, neska-lagun edo inongo arrebarik gabekoa. Esan nahi dut, argi eta garbi esan dezagun behingoz!, ez nekiela zer ostias zen bene-benetako hileroko on eta sendo bat.

Gaur egun baditut zantzu batzuk, eta pentsatzen hasia naiz, agian, ez zela horren gauza irrazionala izango, eta mesedea egingo ziela bai emakumeei eta bai herriari ere, ez dakit e?, agian diot, ez hasi orain ni harrikatzen, hausnartu pixka bat.

Beste gauza batzuekin ere ez nengoen batere konforme. Esate baterako, errendizioaren kontuarekin. Gauza jakina da nola, zurien kontrako gudueta zebiltzala, zaharrek beti errendizioaren alde egiten zuten eta gazte odolbero eta gatatzatsuen kontra. Nik beti gazte odolberoaren alde egiten nuen!, eta "hemendik aurrera ez naiz gehiago borrokatuko" eta horrelakoak irakurtzerakoan izugarri gogogabetzen nintzen. Eta azken orrian ituna sinatzen zutenean nazka-nazka eginda bukatzen nuen: "Diosss!, beste gudu bat galdua!". Ez dakit esan dudana, baina oso gazte nintzen. Orain, atzera begira, borroka armatuetan ematen den errendizioari beste modu batez begiratzen diot. Crazy Horse bera ere (tasunké witko, lakoten artean gudari eta gidaririk handiena) errenditu baitzen. "Herriak bizi behar du!" leloarekin eraso egiten zuen herri batek lelo berarekin amore ematea jakin behar duela iruditzen zait orain. Borroka armatuari mugatutako amore emateaz ari naiz. Herria bizi den heinean erabateko errendizioa ez baita sekula ematen ahal. ●



Karrikiriren zinemaldiaren baitan, gaur *Asterix eta Obelix, Zesarren aurka* filma pantailaratuko dute ● EGUNKARIA

## 4. zinemaldia euskaraz Iruñean

Golem Baiona zinematokietan, 20:00

Data	Filma	Film laburra
Urtarrilak 26 eta otsailak 2	Asterix eta Obelix Zesarren aurka	Sarabe
Otsailak 9 eta 16	American History X	Hauspo Soinua
Otsailak 23 eta martxoak 2	Murielen ezkontza	Seguritas Angelorum
Martxoak 9 eta 16	Zu zeu	Usoa
Martxoak 23 eta 30	Gu bai gu!	Hego haizea, ero haizea

Sarrera: 500pta. / Bonoak: 2.000 pta. (5 emanaldi)

I RUÑEKO EUSKALDUNEI EGUNEROKO bizitzan euskaraz aritzeko aukera guztiak emateko helburuarekin, Karrikirik, beste gauza askoren artean, zinemaldia antolatu ohi du urtero. Karrikiriren zinema taldearen lan eskerari esker euskarazko filmik interesgarrienak lortzeko lanean jardun du. Haurrentzako filme-

tatik aldenduz, oso zaharrak ez diren bost film lortu dituzte. Bakoitza bi ostiraletan pantailaratuko dute. Eta film luze bakoitzarekin batera, euskarazko film labur bat ikusteko aukera ere izanen da. Guztira, bost film luze eta bost labur izan dira ikusgai. Lehenengoa gaur emanen dute, eta azkena, martxoaren 30ean.

Aurtengo ekitaldiak badu nobedaderik. Bikoizketa lan eta film labur hoberenei sari bana emanen diete; lehenengoa, ikusleen iritzian onarrituta, eta bestea, aditu talde baten laguntzaz.

Emanaldiak ostiraletan izanen dira, 20:00etan, Baiona zinematokietan. Sarrera bakoitzak 500 pezeta balio du, baina, 2.000 pe-

zetaren trukebonuak ere eskura daitezke. Hauek izanez gero, Karrikirin, Xalbador, Auzolan eta Abarzuza liburu dendetan eskura daitezke. Zinemaldiak Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Gobernuko Kultura Departamentuaren laguntza jaso du.

→ Asier Azpilikueta

## herri aldizkariak

Edurne Elizondo

## Festen egunak aldatu nahi al dituzu?

Herriko festen egunak aldatzeko aukeraz mintzatzen ari dira Lekunberrin azkenaldian, eta horren inguruan idatzitako artikulua jaso du **Mailope** aldizkariak bere azken zenbakian: «Lekunberriko Udala herri horretako festen data aldatzeko aukera eztabaidatzen ari da. Azken urteotan jasandako eguraldi txarrak aitzinatik ezaguna den eztabaida berriro eragin du. Herrian noizbait entzun izan da garai batean festak San Juanetan ospatzen zirela, eta ondoren, Pilar egunera aldatu zirela».

Mailpek herriko adinduen iritzia jaso du gai horren inguruan: «Patxi Mikeo Lekunberrikoa da, eta 76 urte ditu. Berak esan digunez, betidanik ezagutu izan ditu festak Pilar egunean, eta bere ustez, ermita eraiki zenetik ospatzen dira garai horretan. Hots, duela 100 urte baino gehiago. Dena den, ermita eraiki baino lehen San Juan egunean ospatzen zirela entzun izan du berak ere, nahiz eta horren ziurtasunik ez eduki. Patxi Mikeo ez da festen data aldatzearen aldekoa. Ohiturak aldatzea oso gogorra dela dio».

«Uxue Azpirotzek, berriz, festak San Juan egunera aldatzea nahiago du. Eguraldia hobea da, eta euria egin arren, ez du urrian egiten duen hotzik egiten. Horrela, jendea kalera irteten animatuko litzateke, herriari bizitasuna emanez. Agian kaltetuenak uni-bertsitateko ikasleak liriateke, garai horretan azterketak dituztelako». «Ez da erraza izanen alde batera edo bestera jotzea. Datozen hilabeteotan ikusiko dugu nolako bidea hartzen duen gai honek».



# Tabakoaren industria nafarroan

Gain behera dator, ekoizleak zahar direlako eta eskulana falta delako

Nafarroako tabako ekoizleak biltzen dituen Tabachavana elkarteak egunotan tabako hosto idorrek biltzen eta sailkatzen ibili da. Nafarroako tabako beltzarekin puruak eginen dituzte. Orotara, ehun milioi pezeta inguru mugitzen ditu urtero industria honek (lau milioi libera), baina geroz eta gutiago irabazten dute tabako ekoizleak; lortzen duten diru kopurua egonkorra da, baina gastuek gora egiten dute, eskulana falta da eta ekoizleak arrunt zaharrak dira.

**T**ABACHAVANA ELKARTEAK NAFARROAKO tabako ekoizleak biltzen ditu. 1992ko erreforma batek tabako ekoizleak elkartzea behartu zituen, eta horrelaxe sortu zen. Atzo arte tabako hosto idorrek biltzen eta sailkatzen ibili ziren Muruetan duten Loquiz kooperatiban.

Miguel Laspalas Tabachavana elkarteak kidea da. Nekazariari laguntza teknikoa ematen die, baita tabakoa erosi ere. Kooperatibara eraman duten tabakoa sailkatzen aritu da egunotan. «Tabako landareak 16-18 hosto ditu, hiru mailatan banatuak», esplikatu du. «Lehen 4-5 hostoek beheko maila osatzen dute, hurrengo 8-10ek erdiko maila, eta azkenengo 4-5 hostoek goiko maila».

Maila bakoitzak bere ezaugarri fisiko eta kimikoak ditu. Laspalasek aitzinetik tabako fardelak pasatzen ziren heinean haiei begiratu, eta, hostoaren gorputz eta kolorearen arabera, zein mailatakoak ziren erraten zuen. Baita azalpenak eman ere: «Behetik gora,

hostoen nikotina eta kloro kopurua eta indarra handitu egiten da. Tabakoari eman nahi zaion zapoaren arabera, bata edo bestea hartzen da». Nafarroan ekoizten den tabakoa Habana motakoa da, puruak egiteko tabakoa. Erdiko mailako hostoak erabiltzen dira horretarako. Behekoak eta goikoak zigarroetan sartzen dira. Hortaz, Nafarroan egiten den tabako gehiena puroak egiteko da.

**Tabakoaren ekoizpen prozesua**  
Tabakoaren ekoizpen prozesua martxoan hasten da. Tabachavanak haziak ematen dizkio nekazariari, eta hark bi aukera ditu: landarea berak egitea, edo berotegi batera eramatea han egin dezaten. Nafarroako ekoizle gehienek bigarren aukerara jotzen dute. Landarea 60 egunetan egiten da. Birlantatzeak maiatzaren 10etik aurrera egiten dituzte.

Tabako landarea sorozan garatuko da ondoren. Tabakoa metro bateko edo 1,2 metroko landarea da, eta hosto guztiak atera eta gero, goiko partean lorea ateratzen zaio.

Nekazariak lorea moztu behar du, izerdia hostoetara joan dadin. Horrela hostoak handiagoak egiten dira. Horri kamustea erraten zaio.

Landarea birlantatzen denetik kamusten arte beste 60 egun pasatzen dira. Eta hostoak nahikoa handi egiten direnean, nekazariak biltzen ditu. Abuztuaren bukaeran edo, landare osoa hartu eta zintzilkatzen du idor dadin. Idortu eta gero, hostoekin mailen arabera fardelak egiten ditu. Urtarrilaren erdialdean fardelak kooperatibara eraman, sailkatu, prezioa jarri eta Coriara (Caceres, Espainia) eramaten dituzte ontzeko. Eta handik merkaturatuko dute tabakoa.

### Industriaren arazoak

Nekazariak kilo bakoitzeko 60 bat pezeta jasotzen dituzte Tabachavanatik, eta 383 pezeta Europako Batasunetik. Horrek esan nahi du batez ere diru laguntzei esker bizi direla. Gainera, tabakoaren prezioa (nekazari-



Nafarroako tabako ekoizleek bataz besteko adina oso altua dute. Horregatik, ez dago industriaren etorkizuna ziurtaturik. Dena den, oraindik ere puroak egiteko tabakoa ekoizten dute. Aurten, denetara 230.000 bat kilo tabako hosto bildu dituzte.

MIKEL SAIZ



**Joaquín Arrigorriaga**  
LEGARIAKO TABAKO EKOIZLEA

«Tabakoaren industria familiartekoa da. Nireurretik aita eta aitaxi ibili ziren tabakoarekin. Eta nire semea oraindik ez dabil hostoak biltzen bost urte besterik ez dituelako. Familiarekin lan egitea da dirua lortzeko modu onakarra. Bestela ez zaizkizu kontuak ateratzen»



**Miguel Laspalas**  
TABACHAVANA ELKARTEKO KIDEA

«Tabako ekoizpena arriskuan dago ekoizleak zahartu egin direlako. Nekazarien batez besteko adina oso altua da. Nekazari berririk ez dago, oso jende guti gelditzen baita nekazaritza munduan. Honek ez du konponbiderik. Laborantza mota hau desagertzeaz dago»

nekazaritza munduan. Honek ez du konponbiderik. Laborantza mota hau desagertzeaz dago langile falta dagoelako eta nekazariak oso zaharrak direlako. Gelditzen direnak asko kexatzen dira, baina azkenean tabakoa eriten dute».

Laspalasen ondoan, fardelak gora eta behera, Joaquín Arrigorriaga dago, Legariako 35 urteko nekazaria. Nekazarien artean gazteenetakoa da. «Konponbidea tabakoaren prezioa igotzea da», erran du Arrigorriagak kexuka. «Baina guk ezin dugu igo, guri ere kontuak behar bezala ateratzen ez zaizkigulako», erantzun dio Laspalasek. Nekazariak tabakoaren truke jasotzen duten diruaz ari dira, ez gero kontsumitzaileak ordainduko duen diruaz.

### Familiartekoa industria

Arrigorriagari diru sarrerak nekazaritzaetik etortzen zaizkio nagusiki. Lana gogorra dela dio, baina une oro dago txantxetan: «Tabakoarekin 25 ordu egin behar duzu lan egunero, baina behintzak hortzak sano izaten laguntzen dizu. Nik 35 urte ditut, eta tikitatik nago tabakoarekin. Aita lehenagotik ibili zen, eta aitaxi; oso hortz onak denek».



## Tabakoaren datuak

Non?

Tabakoa Erriberan (Milagro eta Funes herrietan) eta Estellerrian (Lizarratik Marañonera herrietan) ekoizten da Nafarroan. Tabachavana elkarteak horko guztiak eta Arabako Santa Kurutze Kanpezuko ekoizleak biltzen ditu.

Zenbat kilo?

Nafarroan 97 nekazari ari dira tabakoa ekoizten eta aurten 85 hektarea landatu dituzte. Hektarea bakoitzeko 2.700 bat kilo tabako lortzen da, guti gorabehera. Denetara, 230.000 bat kilo. Nekazari titkienak 500 kilo lortzen ditu, eta handienak, 16.000.

Zenbat diru?

Tabachavana elkarteak 60 pezeta ematen dizkio nekazariari tabako kilo bakoitzeko. Gero, FEOGA diru laguntzen bidez, beste 383 pezeta jasotzen ditu nekazariak kilo bakoitzeko. Hau da, 443 pezeta kilo bakoitzeko. Denetara, ehun milioi pezeta inguru mugitzen ditu tabako ekoizpenak Nafarroan.

Nora?

Nafarroako tabako gehienekin (%65) puruak egiten dituzte. Tabako gehienak Belgikako enpresa batek erosten du, puru tikiak egiteko. Beste zati bat Kanarietako CITAC eskuratu du, eta hondarrekoa Magrebeko herrietara eramaten dute.

→ Asier Azpilikueta

## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

### Ele txotxak! (1)

Honezkerok sagardo garaian labaindurik txotxetik edateko urrupada labor ugariak dastatzeko garaia dukegula, zerk eragotz diezaguke idatz kontuetan ere, edalontzia eskuan, zutik eta upela txorrota lagun, eleak txurku-txurku kolpeka ber moduan edatea?



**Jamar anaiak**  
Jamartarrak ez zaizkigu komunzki nafartzat eskaini, baina baziren, Artzibarkoak hain zuzen ere. Joakin Jamar Domenetx Nagoren sortu zen, 1832an. Eliz ikasketak bukatzeke Donostian kokatu zen, eta ekonomia eta industria ikasketak egin zituen. Honako gaiez zenbait idazki ondu zituen, baita Suezeko pasabidearen aldeko bat ere. Gai honen inguruan idazki bat baino zerbait gehixago eginen zukeen baina, bada 1869an inauguratu zenean hara joan zitzaigun Egiptoko Jedifeak gonbidaturik. Arras ekonomialari ona izan zen, eta idatziz zituen liburuen artean beste hizkuntzetara itzuli eta zabaldu zenik bazen. Pasaiaiko Sociedad Generaleko idazkari eta Gipuzkoako diputatu zenak Gipuzkoako foruen aldeko liburua idatziz zuen, *El fuero de Guipúzcoa: la cuestión social, Bilbon, Fermin Herranen liburutegi eskaldunean*, 1900ean. Joakin Jamar Donostian zendu zen, 1887an.


Anaia txikerra ere, Joakin Benito Jamar, Domenetx Nagoren sortu zen, 1848an. Hau

ere Donostian ibili zen, hango *La Voz de Guipúzcoa* egunkariaren zuzendaria izan zelarik 1898ko ekainaren 20an hil zen arte. Bilintx bera ezagutu eta lagun izan zuen Jamar honek euskal testuen antologia apailatu zuen 1896an, *Biblioteca selecta de autores vascongados*, hirurogeita hamahiru olerkiko bilduma, Vinsonek berak aipatu ziguna: «Ce sont pour la plupart des compositions, faites, depuis vingt ou trente ans, par des ecclésiastiques ou des amateurs du pays dont l'éducation était purement française ou espagnole. Parmi elles, j'ai remarqué la pièce Andregeya du regretté Edmond Guibert».

**Euskalari militarrek**  
Eufrazio Munarriz Urtasun infanteriako teniente koronela zenak *El vascuence en la vieja Navarra* izenburuko artikulu mamitsua eman zuen argitara RIEV aldizkarian 1923 eta 1924 urteetan: «Repasando antecedentes relacionados con Navarra en el archivo Histórico Nacional recibí con grata sorpresa al ver testimonios de que se hablaba vascuence en pueblos en

que nadie recuerda que se haya hablado, y para que el curioso pueda cerciorarse si gusta de la verdad de cuanto voy a decir pondré toda clase de detalles y datos que facilitarán su comprobación». Gauza ezaguna bada ere, soberan ez da lantzean behin gogora ekartzea jarraian nikoak bezalako herriak euskaldunak izan direla izan: Lizarra, Lezaun, Iturgoien, Munarriz, Jaitz, Eneritz, Orkoi, Etxauri, Artazu, Biguria, Ororbia, Barasoain, Muniain... Ez zen RIEV-eko artikulu hau Munarritzen lan bakarra, eta orobat bi eleberriren egilea izan genuen: *Leoz el marino* (1930) eta *Miguel de Iturbide* (1931). Joakin Morales de Radarena gutxitan aipatzen den beste izen horietakoa dugu. Aingeru Irigaraik malgrado coronel deitu zuen corellar honek Nafarroa euskaldunaren egoera linguistikoa zehatz-mehatz ikertu zuen 1961ean. Ikerketaren emaitzak *De re vasconica* artikuluan agertu zizkigun bi urte beranduago *Munibe* aldizkariaren lehenbiziko zenbakian.

**Gaitariak**  
Lizarrako Udalak 1902ko irailaren 13an gaitaren zerga ezarri zuen, hau da, hirian jairen bat musikaz alaitzen zuen edozeinek bost pezeta ordaindu behar zion Udalarik festa egun izatekotan, eta laneguna zenean, zerga 50 pezetaraino loditzen zen. Zerga honek edozein motatako musikari men egiten bazion ere, gaitariak izan ziren kalte-tuenak, izan ere, urte haietan gaitariena merkeena gertatzen baitzen, eta badirudi, hori zela eta, gaiteroak zituela buruan Lizarrako Udalak. Nonbait Udalak ez zuen gogoko lehen zeuden festa egunen kopuru handia, eta musikaren kontratazioa zailduko zuen akordio horrekin hori ekiditea pentsatzen zuen. Esan gabe doa alferrik gertatu zela, festazaleek berean jarraitu baitzuten sakelak hustearen truke bazen ere.



## panpilonia zirkus

Pello Argiñarena



«Hemen bezain ongi ez da bizi inor» • MIKEL SAIZ

### Europako izarra

UDALAREN WEBGUNEAREN ARABERA, «Iruñea hiri irekia da: 2000 urtez hainbat herri eta kultura ezagutu ditu». Bitartean, bertakoaren euskal kultura bazterrean uzteko egiten ari den ahaleginaz ez du aipamenik egiten. Ate birtual hori etorkinentzat ere itxita dago. Gurean Hemingway bezalako bisitari kosmopolitak besterik ez ditugu onartzen.

Ernestek dantzatzan zuen Astrainen baltseak dioen bezalaxe, «hemen bezalako bestarik ez da inon». Mario Gabiria soziologoaren ustez, gainera, «hemen bezain ongi ez da bizi inon». Iruñea hiri europarra da goitik behera. Izar berri bat gara.

Landaben Alemaniako eskualdea da. Volswagenek mundu osoan duen fabrika produktiboena hantxe dago kokaturik. Iruñeko sei mila lagunek bertan egiten dute lan. Soziologoaren esanetan, «langabeziaren indizeak Europaren parekoak dira gure hiriburuan eta egoera ekonomiko larrian biztanleen %5 besterik ez dira bizi».

Lantegitik kanpo, Gabiriaren aburuz, «Frantzian bezala trago luzea hartzeko ohitura daukagu hemen». Tabernaz inguratutik bagaude ere, metropoli tiki honetako 30 kultur eta kirol elkarteetan 80.000 lagun daude bazkide-turik, nahiz eta sarritan, afaltzeko besterik ez bildu. Aurre-rago, Erroman bezain katoli-

koak garela dio berak. Nolanahi ere, garapen demografikoa Europako ttikiena da, 180.000 bizilaguneko hiri honetan. «Trago luzearen ondoren, koito motza egiten delako agian».

Eguraldiari dagokionez, Londresen bezalaxe, hemen ere gutxitan ikusten dugu eguzkia. Eurria eta hotza nagusi dira. Suizidio gutxi dago hala ere. Gaixotuz gero, Eskandinaviaren antzera, «mundu mailako osasun sare publiko eta pribatu onenetariko» dugula nabarmentzen du ikerlariak. Dena den, Salamancan bezalaxe, Iruñean asko dago ikasteko oraindik. Batez ere, «Iruñeko hiru unibertsitateetan. Orotara 25.000 ikasle inguru biltzen dira». Udaberri partean, ikasgeletan baino gehiago parke-etako belardietan etzanda egoten dira tartarrean.

Foru Komunitateko hiri nagusian berdegune franko ditugu, Suitzan bezalaxe. Gabiriak azpimarratzen duenez, «Iruñean hiriaren eta ingurugiroaren ekologiek bat egiten dute». Irlandan eta hemen, bereziki kutsatuta dagoena politikagintzaren giroa da. «Zenbait, euskal herritar dira bakarrik; beste batzuk, nafarrak eta kitto; gehienak, espainiar huts-hutsean». Egoera honen ondorioz, haserre bizi omen gara gure artean inguru eder honetan, Europako izar berezi honetan.

## Ziria

• Motxorrosolo •

### BAB

EZTABAIDA POLITIKOAREN MAILA ESKASAZ OHARTARAZI ZIGUTEN aspaldi. Ideien trukerako eremu desegokian ginela gatzigatu ere bai. Hondarrekoek ezer aldatu dela erakusten digute. Moldea bera txerrenek egina badirudi ere, solasaldia, eztabaida egon badagoela ezin uka. Betiko kalaka aditzea baino, eremu labainkorretara garamatzaten adierazpen eta mugimenduak nahiago.

# Luis Arellano

ARGAZKILARIA

## «Argazkien bidez istorioak osatzea maite dut»

Luis Arellano argazkilari iruindarraren argazki erakusketa hartu du Nafarroako hiriburuko Planetarioak. Arellanok Marokoko Chefchauen herrian jasotako irudiak dira, eta hango haurren bizimodua islatzen dute. Hara itzultzeko asmoa du, iaz hasitako argazkigintza mintegiarekin jarraitzeko asmoz.

● MIKEL SAIZ

PLANETARIOAN ZINTZILIKATU argazkien artean hartu gaitu Arellanok. Hurrez beteta dago aretoa, eta hara joan nahi duten ikastetxeentzat erakusketa zabalik dagoela gogoratu du argazkilariak. Hurrek alde egin bezain laster, bere lanaz mintzatzen hasi zaigu Arellano.

### ■ Nola ailegatu zinen Marokora?

Oporretan joan nintzen 1993an lehenengo aldiz, inolako proiektu zehatzik gabe. Chefchauen herrian astebete eman nuen, eta hainbat egoera bitxi ikusten hasi nintzen. Hurren egoera aztertzen hasi nintzen, eta ia konturatu gabe, haiei argazkiak egiten hasi nintzen. 1996an itzuli eta proiektuarekin jarraitu nuen. Urtebete geroago material guztia errebe-

latu eta horrela sortu zen orain Planetarioan zintzilik dagoen 25 argazkiko bilduma hau.


### ■ Chefchauen herriko bizimodua ezagutu ondoren, zer islatu nahi izan duzu zure argazkien bidez?

Hango haurrek gizarte musulman batean duten bizimodua islatu nahi nuen: mendiko bizimodua, jasotzen duten hezkuntza, egiten duten lana, jolasak... Bizi duten egoera agertu nahi izan dut, denok ahal dugun neurrian aldatzen lagun dezagun. Gu bezain aurreratuak ez dauden herriak baztertzen ari gara etengabe, eta horren aurrean Chefchauengo haurren berri eman nahi izan dut, haien zat oraindik itxaropena bada goela azpimarratzeko. Mendiandean bizi diren neskatuen %98

inguruk ez dute inolako heziketarik jasotzen, eta haurrak lau urtekin hasten dira lanean. Hori agerian utzi nahi nuen. Musulmanen arreta ere nireganatu nahi izan dut, haiei errateko euren haurrak hezi egin behar dituztela, aukerak behar dituztela.

### ■ Chefchauengo haurrak dira zure argazkietako protagonista, baina haiek ere argazkilari izan dira, eta euren herriaz duten ikuspuntua agertu dute kameraren bidez.

Bai, aukera hori merezi zutela uste dut. Iaz berriro egon nintzen herrian, eta argazki mintegi bat antolatu nuen Ainhoa Garciarekin, argazkigintza hurrei hurbiltzeko asmoz. Hamalau kideko taldea osatu genuen, 13 eta 18 urte bitarteko bederatzita mutil eta bost neskekin, eta 25 urteko neska gazte batekin. Esperientzia oso interesgarria izan zen. Era askotako gizarte esparrutako neska-mutilak genituen. Haiek egindako argazkiak bildu ditugu erakusketan ere. Teknikari dagokionez, ez dira oso lan onak, baina beren herria haien zat zer den ongi islatzen dutela uste dut. Eta horixe lortu nahi genuen. Beren herriko jendea eta txokoak irudikatu dituzte, hango bizimodua eta ohiturak.



● JOXE LACALLE

Egia da, oro har, artetzat hartzen dela argazkigintza, baina jende askorentzat oraindik alderdi hori ezezaguna da. Jendeak oraindik ez ditu argazkiak erosten»

### ■ Esperientzia berritzeko asmoa duzue?

Bai, erakusketaren bidez dirua bildu nahi dugu Chefchauen itzultzeko. Gure asmoa da argazkigintzari buruzko talde iraunkorra sortzea, dena mar txan jarri, gero haiek beren kabuz aurrera eraman ahal izan dezaten. Gobernu kanpoko erakunde batekin harremanetan gaude proiektua egin ahal izateko.

### ■ Londresen ari zara lanean; nolako proiektuak dituzu?

Nik ikerketa dut gustuko, nire argazkien bidez istorio bat osatzea. Erreportaia maite dut, baina nire proiektuak era askotakoak dira. Londresen, adibidez, biluzia landu dut, hiriko leku publikotan biluzien argazkiak eginez. San Frantzisko Xabierrek Indian egin zuen ibilbidea izan da landu dudana beste gaie-

tako bat. Indian ere, eta Nepalen, Chefchauen bezala, hainbat herritako bizimodua islatzen saiatu naiz nire argazkien bidez. Indiara itzultzeko asmoa daukat.

### ■ Azkenaldian, badirudi arreta gehiago eskaintzen zaiola argazkigintzari artearen esparruan; zer deritoxu?

Hala da, baina oraindik gehiago behar dugu. Egia da, oro har, artetzat hartzen dela argazkigintza, baina jende askorentzat oraindik alderdi hori ezezaguna da. Jendeak oraindik ez ditu argazkiak erosten. Londresen egoera hobe da, merkatua zabalagoa delako, eta gehiago baloratzen da argazkilarien lana. Aldi berean, lehia handia dago, eta merkatu horretan sartzea oso zaila da.

→ Edurne Elizondo

## soslaia

Luis Arellano iruindarra zazpi urterekin hasi zen argazkiak egiten, kamera bat oparitu ziotenean. Hamabi urterekin, bere lagunak bilakatu zituen bere argazkietako protagonista, eta hamazazpirekin, Argazkigintza Elkartearen eman zuen izena.

Ikasketa prozesua zaila izan zela dio Arellanok, dakien gehiena bakarrik ikasi duelako. 1994an Londresera joatea erabaki zuen, eta han gelditu zen lan egiten. Argazkilari ez ezik, unibertsitateko irakasle ere bada.

Londresen musikaren eta antzerkiaren esparrutan aritu zen Arellano lanean, bere argazki kamerarekin, baina iruindarrak ez daki geldirik egoten, eta bere argazkiak egitera munduko hamaika txokotara joan da: Maroko, India... Erakusketa ugari egin ditu, eta prentsa eta aldizkarietan ere argitaratu dituzte bere lanak.



## Nafar Kronika

Martxelo Sotes

### Lingua Navarrorum

**S**EINALEAK, KARTELAK, EDOZEIN MOTATAKO agiriak herriaren izaeraren isla izaten dira. Horrexegatik, 1939an, alemaniar gudarosteak Polonian sartu zirenean, nazien lehendabiziko ekintza seinale eta ikur poloniar guztiak suntsitzea eta ezabatzea izan zen. Polonieraz ziren kartel guztiak alemanierazkoekin ordezkatu zituzten.

Nafarroako hizkuntza, euskaldunak ase utzi ez gintuen eremu zatiketa baten ondotik, kostata hasi zen dagokion lekua hartzen. Prozesua burutua ez dagoen arren, karramarroaren dantzan ari dira Sanzen kabineteen.

Ohiko ika-mikari ekin diote. Plangintza aurrera eta atzera. Azkena hau izan da: Miguel Sanzek Nafarroako Buletin Ofizialean agertutako dekretua baldintzatu eta seinale elebidunen berehalako ordezkapena alde batera utzi du. Hau da, ordezkapena ez da berehala eginen, baizik eta hemendik egun batzuetara.

Eta noizko Osasuna, Osasunbidea, Iturrama, Etxabakoitz, Azpilagaina eta Mendillorriren itzulpena? Pozik egonen da Mercairuñaren sutearen ondotik. Berria eraikitzen dutenean Mercapamplona jarri ahal izanen diote lasai asko. Ze demontre!, ez al dago bada eremu mistoan? Baina hobe ideiarik ez ematea.

Hemendik ehun urtetara historiak lekutxo bat gordeko al dio Corellako estadistari? Demagun hala dela. Nola pasako da Miguel Sanzen izena Nafarroako historiaren urrezko orrietara? Nafarroako jatorrizko hizkuntza, kondairan errotua eta aldi berean hizkuntza modernoa, zokortzen saiatu zen politikari ezjakin bezala? 2101. urteko euskarazko testu-liburuetan hala beharko du izan, ezinbestean.

Egun, Nafarroa osoaren kalte eta zori-txarrerako, foru agintari gorenek *nafarizkuntza* (hauxe da Cordovillako inpartzialak darabilen esamoldea) gorroto dute.

Izan ere, Miguel Sanzek arazoa dauka euskararekin. Euskara ez ezik, Nafarroa bera ere ez baitu ulertzen.

## gure aukerak

### INAUTERIAK

**Zubieta-Ituren:** Zubietako joaldunak Ituren herrira abiatuko dira astelehenean, eguerdi partean. Iturengo joaldunek, berriz, asteartean eginen dute kontrako bidea.

### MUSIKA

**Iruñea:** El Color de la Duda taldeak kontzertua eskainiko du gaur Bull Magowan tabernan (Amaia karrika), 22:00etan.

**Elizondo:** Los Padrinos taldea Kasino ostatuan izanen da gaur, 22:30ean.

**Iruñea:** Dusky Line taldeak Cotton Club tabernan (Zilbeti, 4) joko du gaur, gaueko hamabietan.

**Aitzoain:** Tonino Carotonek Artsaian kantatuko du bihar, 23:00etan.

**Ezkirotz:** Shine taldeak zelta musikako soinuak eskainiko ditu bihar Irish tabernan, gaueko hamabietan.

**Burlata:** Konorterik Gabe taldeak izen bereko diskoa aurkeztuko du asteartean Black Rose tabernan, 20:30ean.

### ANTZERKIA

**Iruñea:** Duo taldeak *Munduko zirko ttikiena* haurrentzako lana eskainiko du bihar, 12:00etan, Gurutze plazako Mikael aretoan.

### KIROLAK

**Altsasu:** Igandean Nafarroako Banakako Kros Txapelketa eginen dute Dantzalekuko zirkuituan. Probak goizeko hamabietan hasiko dira, eta proba nagusia 12:30ean izanen da.

### ERAKUSKETAK

**Iruñea:** Felix Reyren argazkiak eta olerkiak ikus daitezkeTxan-

treako Auzotegin, 18:00etatik 21:30era, hila bukatu arte.

**Burlata:** Alicia Fernandezek *Burlata, atzo eta gaur* argazki erakusketa dago ikusgai Joakin Azkarateko kultur aretoan, otsailaren 4a arte. Asteartetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

**Tafalla:** Ernesto Otxoa Sainz mendaviarraren margolanak paratu dituzte Kultur Etxean, otsailaren 11 arte.

### IKASTAROKAK

**Iruñea:** Otsailaren 2a arte

zabalik da Txantreako Auzotegiko ikastaroetan izena emateko epea: eskulanak, euskal dantzak (Txantreako ttuntuna barne), dantza latinoak, pintura eta marrazketa, yoga (haur eta helduendako), sukaldaritza, astrologia, eta trikitixa (haurrendako). Informazio gehiago Auzotegin bertan eskura daiteke, asteleheneetik ostiralera, 18:00etatik 21:30era.

### EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

**Iruñea:** Nafarroako Gobernuak Miluze euskaltegian

(Victoriano Juaristi, z/g) zabalik da urrats guzietako matrikula epea, otsailaren lehena arte, 09:00etatik 12:30era eta 17:30etik 19:30era. Informazio gehiago 948-177670 eta 948-177654 telefonoetan.

**Iruñerria:** Iruñerriko IKAreneuskaltegiaren zabalik da otsailetik goitiko kurtsuetan matrikulatzeko epea: Arturo Campion (948-222246), Barañain (948-188325), Atarrabia (948-332660), Mendillorri (948-162439) eta Ermitagaña (678-861773).

• JOXE LACALLE



### Menua

- Manuela, zer nahiago duzu?, horra menua.
- Behi gorriaren haragirik ez dute emanen, ezta?
- Ezetz uste dut. Barazkiak, arrainak, pasta, postrea... Haragirik ez dute. Baina galdetuko diegu.
- Ez, lasai, jakinmina besterik ez zen. Antza, ohiturak aldatu egin dira, baita tradizio handiko lokaletan ere.
- Bai, ez haragirik, ez euskararik. Tira, goazen, Manuela. Gaur ez dugu Cafe Pamplonan bazkalduko.
- Ixo, Joxemari!, argazkia egin digute eta.